



МАТЕКО БЕДЕИНАКЕКА

MAIEKO BEDEINKAERA.



(ON ANTONIO LECUONA-KO JAUN ANTZEZKIÑ BIKAIÑARI).¹

Mayatz edo Orrillaren azken-egunetako bat zan.

Zeláyak lorez, eta arbólak ostoz eta chori-kabiz beteak zeuden.

Olalde-ko soroetan, gariya mardulik zegoen, eta laster elduko zan ichura zeukan.

Artoa, ere, ernerik zegoen, eta lur ongarrituak; eta eguraldi eziñ ederragoak indar emanik, gora zetorren.

Baserriyaren atzeko gaztañadi bikaiñean, millaka choriyak ezkuta-tzen ziran, eta arkitzen zuten itzalpe maitagarriya.

Piška bat beeracheago, ibai bat garbi-garbi zijoan. Bere kolkoan ikusten ziran erantzaturik ala makalak, nola inchaurreak, ala gari-so-roak, nola aberéntzako zeuden larre-zelaiyak,

Jošé-Mari, Olalde-ko aiton prestua, irten zan goizean baserritik, eta bere seme Pachi eta bere errañ Iñasirekiñ lanera joan zan sorora. Kataliñ Jošé-Mari-ren emaztea, eta Mari-Antoni, Kataliñ-en aizpa, echean gelditu ziran Pachiren aurcho maiteak zaitu, eta bazkariya presta-tzeko.

Jošé-Marik, Pachik eta Iñasik goiz guztiyan, eguzkitan, jardun zuten gogotik lanean, egiten zuen beroagatik, eta bekokitik, tantoka, zerioten izerdiyagatik, izutu gabe, zekitelako «alferkeriya dala gaitz danen sustraiya.»

Eguzkiya, gañ-gañera irichi, eta Olalde baño zerbait goracheago, bost edo sei echeren artean agiri zan eliz-dorrean amabiyak jo zute-nean, Jošé-Marik, chapela erantzi, eta, bere seme eta errañak eran-

(1) On Antonio Lecuona-koak izen berarekin pintatutako antzestak gogar-giturik izkribatu da moldaera au. (Egillearen adirakia.)

tzunik, esan zituen izekiro Gabriel Aingeruak, Jaungoikoaren Amari esan ziozkan itzak: eta lanari lagarik, joan ziran irurak echera, Kataliñ-ek prestatu zioten bazkariyarekin, beren gorputz nekatuak indartzera.

Eldu ziran Olalde-ra, laztan maitatsuak eman ziozkatzen aurchoai, ega-gabeko aingeru ayei, eta ešeri ziran maiyan, Kataliñ-ek talo guri-guriyak erretzen zituen bitartean.

Olalde-n, euskaldun-baserri guztietan bezela okullutik urrean zegoen sukaldea, eta maiyan jarrita zeudelarik, ikusten zituzten abelgorriyen mutúrrak.

Beste aldetik zeukan sukaldeak leyo bat, eta onen aurrean, gerezi arbol bat galanta, non ikusten ziran ugari choriyak, gorritzen asitako gereziyak eldu-orduko jatera etorrita. Nola Mayatzean, Sortitz guztia dagoen chukundua, apaindua, galaitua, loretsutua, poztua, eta kantua eta algara dariola, chori pollit aek etziran isiltzen egun guztian, eta beren soñu otseztiyakin, biraltzen zuten pena eta nekea, Olalde-n bizi ziranen biotzetatik.

Kataliñ-ek taloak erre zituenean, jaiki zan Mari-Antoni apaletik plater bat jeistera, eta Joše-Mari, «Aitaren» egiñik, asi zan maiko orazio edo otoitzak esaten, modu onetan: «Nere Jaun eta Jaungoikoa, gure esperanza guztia, Zugan dago: Zuk ematen dezu bere denboran jateko bear deguna. Zure eskua zabaldu, eta guztiok bedeinkatu gaitzatzu.» Aita gurea, etc.... Guztiyak, ala zarrak, nola gazteak, baita-ere, aurchoak, eranzun zuten biyotz-biyotzetik, eta aiñ zan ederra ikusgarri ura, ezik, amaren magal gozoan zegoen aingeru chikiya, bularra artzeari laga ta miresturik bezela zegoen; maipean zegoen chakurra, eta okulluan zeuden abelgorriyak mugitu gabe zeuden jende aiei begira, eta atariko gerezi-arbolan zeuden chori-taldeak, isildurik, ziruditen choratuta zeudela añ gauza mugigarriya ikustean. ¡Zeruko aingeruren bat, leku doatsu artara jechiya, ote zan, bere urrezko egoak aztindurik, gauz ayek guztiyak aiñ geldi zeuzkana? ¡Nork daki! ... Nik dakitana bakarrik, da, zorionekoak dirala beren nekeizerdiyarekin irabazitako ogiya jatera dijoazenean, Jaunagaz oroitu, eta milla ta milla esker biyotzetik ematen diozkatena, Berak ematen dien jakiyagatik.

¡Bedeinkatuak eta jarraituak izan bitez ¡beti! gure aurrekoen oitura santu maitagarriyak!

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.